


Euskal AEko ingurumen-ekonomiak 1.390 milioi euroko balio erantsi gordina sortu du 2020an

Enpleguari dagokionez, ingurumen-ekonomiak 20.896 lanpostu sortu ditu, ekonomia osoaren % 2,3

Ingurumen-ekonomiaren **balio erantsi gordina (BEG)** 1.390 milioi eurokoa izan da 2020an, hau da, urte horretako BPGren % 1,94, aurreko urtean baino 8 ehunen handiagoa, Eustatek prestatutako ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontuko datuen arabera. 2019. urtearekin alderatuta, ingurumeneko BEGaren urte arteko tasa % 5,8 murriztu da, aldi berean ekonomia osoko barne-produktu gordinarena (% 9,7) baino jaitsiera txikiagoa.

Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen kontua ingurumen-kontuen sistemaren parte da, eta Eurostaten metodologiari jarraituz egiten da. Kontu horiei esker, ekonomia- eta ingurumen-alderdiak modu koherentean integra daitezke Kontabilitate Nazionalaren sisteman. Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) honako hauek osatzen dute: batetik, **ingurumena babesteko** ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituen ekonomiaren parteak, eta, bestetik, ingurumenaren gaineko presioak murrizteko edo ezabatzeke **baliabide naturalak kudeatzeko** jarduerak.

Sektore ekonomikoen arabera, eta BEGari dagokionez, **Zerbitzuen** sektoreak egindako ekarpena nabarmentzen da 2020an (% 28,4) eta, ondoren, **Erauzketa- eta manufaktura-industriak** (% 25,0), **Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa** (% 21,3), **Eraikuntza** (% 16,5), **Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura** (% 5,8) eta, azkenik, **Lehen sektorea** (% 3,0) datoz.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoaren arabera (%). 2020


Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Denboran izandako **bilakaera** aztertuta ondorioztatzen da sektore gehienek ingurumen-BEGa txikitzen dutela, eta *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzaren* sektorea nabarmentzen da, urte arteko % 17,0ko tasa negatiboarekin, eta, ondoren, *Eraikuntzak* % 12,0 egin du behera eta *Erauzketa- eta manufaktura-industriak* -% 9,2. Azkenik, *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua hornitzeko* sektorea eta *Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa* dira jaitsiera pixka bat txikiagoa izan dutenak (-% 6,8 eta -% 6,2, hurrenez hurren). *Zerbitzuen* sektorea da joera positiboa izan duen bakarra, % 3,8 egin baitu gora.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldearen arabera (mila euro). 2018-2020

	2018	2019	2020 (p)	Ingurumeneko BEGaren gainera %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2018	2019	2020 (p)	2019/2018	2020 (p)/2019
Ingurumeneko BEG, guztira	1.309.945	1.476.372	1.390.282	100,0	100,0	100,0	12,7	-5,8
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	37.133	50.307	41.762	2,8	3,4	3,0	35,5	-17,0
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	362.467	383.397	348.155	27,7	26,0	25,0	5,8	-9,2
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	99.028	86.684	80.764	7,6	5,9	5,8	-12,5	-6,8
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	324.971	315.992	296.263	24,8	21,4	21,3	-2,8	-6,2
F: Eraikuntza	137.892	260.150	228.916	10,5	17,6	16,5	88,7	-12,0
G-U: Zerbitzu-sektorea	348.454	379.843	394.422	26,6	25,7	28,4	9,0	3,8
B.P.G. m/p	76.888.235	79.537.107	71.828.616				3,4	-9,7

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide (LOB) gisa neurtuta, 2020an erregistratutako enplegu guztiaren % 2,3 izan da, baina % 2,4 egin du behera, 2019arekin alderatuta.

Sektore ekonomiko bakoitzaren ingurumen-enplegua aztertzen badugu, lehenik eta behin *Zerbitzuen* sektorea nabarmentzen da, ingurumen-enplegu guztiaren % 30,2 hartzen baitu, 2019an baino %1,6 gehiago; ondoren, *Erauzketa- eta manufaktura-industriak* (% 25,0), *Eraikuntza* (% 20,6) eta *Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa* (% 20,1)

daude. Bestalde, enpleguan ingurumen-ekarpen txikiena izan duten sektoreak *Lehen sektorea* eta *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura* izan dira, % 3,8rekin eta % 0,3rekin, hurrenez hurren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoko enplegu baliokidea (LOE), jarduera-taldean arabera. 2018-2020

	2018	2019	2020 (p)	Ingurumeneko enpleguaren gainera %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2018	2019	2020 (p)	2019/2018	2020 (p)/2019
Lanaldi osoko enplegu baliokidea	19.078	21.418	20.896	100,0	100,0	100,0	12,3	-2,4
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	635	738	798	3,3	3,4	3,8	16,2	8,2
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	5.700	5.641	5.234	29,9	26,3	25,0	-1,0	-7,2
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	60	48	60	0,3	0,2	0,3	-20,3	24,8
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	4.088	4.305	4.193	21,4	20,1	20,1	5,3	-2,6
F: Eraikuntza	2.501	4.475	4.298	13,1	20,9	20,6	78,9	-4,0
G-U: Zerbitzu-sektorea	6.095	6.212	6.314	31,9	29,0	30,2	1,9	1,6
Ekonomia osoaren LOE	960.396	974.811	914.369				1,5	-6,2

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Urte arteko terminoetan, 2020ko ingurumen-enpleguaren bilakaeran nabarmentzen diren sektoreak honako hauek dira: *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura*, urte arteko % 24,8ko tasarekin, eta, urrun samar, *Lehen sektorea*, azken horrek % 8,2ko hazkundea izan baitu aurreko urtearekin alderatuta.

Ingurumen-azpisektorea ekonomia osoarekin lotzen duten **adierazle nagusiak** kontuan hartuta, ingurumeneko BEGa 2020ko BPGren % 1,94 da, aurreko urtean baino 8 ehunen handiagoa, eta Lanaldi osoko enplegua enplegu osoaren % 2,29, aurreko urtean baino 9 ehunen gehiago.

Euskal AEk Estatuko ekonomiari egiten dion ekarpenari dagokionez, Euskal AEko ingurumen-ekonomiaren BEGak, 2020an, Estatuko ingurumeneko BEGaren % 5,0 sortu du. Bestalde, ingurumen-enplegua Euskal AEn Estatu mailan sortutako ingurumen-enpleguaren % 4,8 izan da.

Bestalde, BPGrekin erlazionatuta, ingurumeneko BEGari dagokionez, Espainiako balioa % 2,49koa da, Euskal AEkoa baino handiagoa, 2020an % 1,94koa izan baita.

Europarekin alderatzeko, Eurostatek 2019aren inguruan argitaratutako azken datuak aztertzen dira. **BPGren gainera BEGaren** adierazlea Euskal AEn % 1,86koa izan da, inguruko herrialdeen antzera: Frantzia (% 1,84), Italia (% 1,90) edo Alemania (% 1,96). Datu horiek EB-27ko batez bestekoaren azpitik daude (% 2,32). Taularen goiko muturrean honako herrialde hauek daude, besteak beste: Finlandia (% 5,77), Estonia (% 4,55), Austria (% 4,21) edo Danimarka (% 3,37).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, jarduera-taldearen arabera (%). 2018-2020

	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) guztizko enpleguaren (LOE) aldea		
	2018	2019	2020 (p)	2018	2019	2020 (p)
Ingurumenekoa, guztira	1,70	1,86	1,94	1,99	2,20	2,29
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,05	0,06	0,06	0,07	0,08	0,09
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,47	0,48	0,48	0,59	0,58	0,57
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,13	0,11	0,11	0,01	0,00	0,01
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,42	0,40	0,41	0,43	0,44	0,46
F: Eraikuntza	0,18	0,33	0,32	0,26	0,46	0,47
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,45	0,48	0,55	0,63	0,64	0,69

(P) behin-behineko datuak


Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako Araudiari jarraiki, **bi eremu handi** bereizten dira, haien ingurumen-helburuaren arabera: **ingurumena babesteko jarduerak** eta **baliabideak kudeatzeko jarduerak**, biak elkar baztertzen duten bi sailkapenetan jasoak. Alde batetik, ingurumena babesteko jarduerak Ingurumena Babesteko Jardueren Sailkapenean (**IBJS**) deskribatzen dira, eta, bestetik, ingurumena babesteko baliabideak kudeatzeko jarduerak Baliabideak Kudeatzeko Jardueren Sailkapenean (**BKJS**) deskribatzen dira.

2020an sortutako ingurumeneko BEGaren guztizkoaren gaineko pisu handiena, Bestelako IBJS batzuk kategoriari dagokio. Haren barruan sartzen dira, zarata murrizteko, biodibertsitatea babesteko eta erradiazioaren aurkako jarduerak eta ingurumeneko I+G jarduerak, besteak beste, eta % 28,6ko ekarpena egiten dute. Atzetik, beste jarduera batzuk, guztizkoaren % 22,4ko ekarpena egiten duen Hondakinen kudeaketa, besteak beste.

Besteak beste, uraren, baso-baliabideen eta basoko flora eta faunaren kudeaketarako jarduerak biltzen dituen Bestelako BKJS batzuk kategoriak, besteak beste, ingurumeneko BEGaren % 24,5eko ekarpena egiten du.

BPGri dagokionez, ingurumena babesteko jarduerak (IBJS) BPGren % 1,14 eman dute 2020an, baliabideak kudeatzeko jarduerak egiten duten % 0,79ko ekarpena baino handiagoa.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-eremuen arabera (%). 2020


Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Enplegua aztertuz gero (lanaldi osoko lanpostu baliokideak), ingurumen-babesari lotutako jarduerak dira, era berean, guztizkoaren aldean pisu handiena dutenak (% 1,50), baliabideen kudeaketarako jardueren % 0,78ren aldean. Zehazki, guztizkoari enplegu gehien ekarri dion ingurumen-esparrua Bestelako IBJS batzuk izan da (% 0,77), eta, ondoren, Bestelako EAGK batzuk (% 0,56).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-eremuaren arabera (%). 2018-2020

	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) guztizko enpleguaren (LOE) aldean		
	2018	2019	2020 (p)	2018	2019	2020 (p)
(IBJS + BKJS) GUZTIRA	1,70	1,86	1,94	1,99	2,20	2,29
IBJS GUZTIRA	0,95	1,09	1,14	1,25	1,46	1,50
IBJS 1 - Airearen eta klimaren babesa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,03	0,03
IBJS 2 - Hondakin-uren kudeaketa	0,09	0,10	0,10	0,07	0,09	0,09
IBJS 3 - Hondakinen kudeaketa	0,42	0,42	0,43	0,53	0,57	0,54
IBJS 4 - Lurzoruak, lurpeko urak eta lurrazaleko urak babestea eta deskontaminatzea	0,03	0,03	0,04	0,05	0,05	0,07
BESTE IBJS BATZUK	0,39	0,52	0,55	0,56	0,71	0,77
BKJS GUZTIRA	0,76	0,77	0,79	0,74	0,74	0,78
BKJS 13A - Energia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	0,25	0,23	0,23	0,15	0,15	0,15
BKJS 13B - Energia/beroa kudeatzea eta aurrezte	0,08	0,09	0,08	0,08	0,08	0,07
BESTE BKJS BATZUK	0,43	0,45	0,48	0,51	0,51	0,56

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62